

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gaur egungo munduan, teknologia berriek aukera paregabeak eskaintzen dituzte negozio-eredu berritzaileak garatzeko. Arostoren helburua, janari osasuntsua eta azkarra eskaintzeko aplikazio baten bidez, erabiltzaileen beharrei egokitutako zerbitzu eraginkor eta pertsonalizatua eskaintzea da. Hori lortzeko, funtsezko baliabideen antolaketa eta erabilera egokia ezinbestekoa da. Hurrengo ataletan, proiektuaren beharrezko baliabideak eta horien kudeaketa aztertuko ditugu, helburua argi izanik: **kalitatezko zerbitzua eta bezeroen gogobetetasuna bermatzea.**



Bulegoa (<https://www.idealista.com/inmueble/95975165/>) (klikatu ikusi ahal izateko) beharrezkoa izango da taldearen bileretarako, ideien garapenerako, eta proiektuaren eguneroko kudeaketarako. Bulegoa eroso eta lanerako giro egokikoa izan behar da, eta, halaber, taldearen eta bezeroen arteko bilerak egiteko tokia izan behar du. **Adibidez**, bezeroek gurekin pertsonalki hitz egiteko aukera izan dezaten, bilera gela atsegina eta pribatua sortuko dugu. Bertan, proiektuen aurrerapenak aurkezteko eta bezeroen iritzia jasotzeko espazio egokia eskainiko dugu. Bileretarako ekipamendu modernoak (proiektagailu 1, 5 ordenagailu) ere ezinbestekoak izango dira, hau da,

bezeroekin elkarreragiteko aukera eroso eta dinamikoa izango dugu. Horrez gain, **administrazio-lanak egiteko beharrezko espazioak eta materialak ere behar dira.** Administrazio-lanak egiteko, hala nola fakturazioa, kontratuak eta kontabilitatea kudeatzeko, espazio bereizita izango dugu. Adibidez, mahaigaineko ordenagailu eta dokumentuak gordetzeko artxiboak izango ditugu, eta baita telefono-lineak eta posta elektronikoko zerbitzuak ere, eguneroko kudeaketa eraginkor eta profesionala bermatzeko. Horrela, taldeak bereziki bulegoko administrazio lanetan kontzentratzea ahalbidetuko da, eta egoera edo prozedura burokratikoak azkar eta erraz kudeatzeko aukera izango dugu.

Sistema informatikoa indartsua eta segurua aplikazioaren garapena eta bezeroen datuen kudeaketa egiteko beharrezkoa izango da, eta horretarako bazkideen bidez kudeatuko ditugu teknologia arloan izan ditzazkegun oztopoak adibidez, *Bilboko eta Donostiko startup-ak*. Horrek aplikazioaren errendimendua eta erabilera erraza bermatuko ditu, baita datuen segurtasuna eta pribatasuna. Erabiltzaileen esperientzia hobetzeko, **adimen artifiziala** erabiliko da **Sherpa.ia** edo **Bismart** - en **bitartez**, pertsonalizatutako gomendioak eskaintzeko, aplikazioaren eraginkortasuna eta erabiltzailearen



konfiantza handituz. **Datuen segurtasuna eta pribatutasuna bermatzea gure lehentasuna da**, horretarako, *CodeContract*-ekin arituko gara lanean. Haien **Enkriptazio teknologiek** gure aplikazioan gordetzen diren informazio guztiaren segurtasuna babestuko dute, erabiltzaileen datuak ezin izango dira eskuratu edo manipulatu baimenik gabe. **Zerbitzari eta informatikako bestelako baliabideak** ere garrantzitsuak izango dira, aplikazioaren errendimendu optimoa eta segurtasuna bermatzeko. Adibidez, hodeiko zerbitzari (cloud computing) sistema indartsu bat erabiliko dugu. Gainera, **pilatutako datuen analisia egiteko plataforma bat** funtsezkoa izango da. Datuak aztertzeko, **BI (Business Intelligence) tresnak** erabiliko ditugu, non erabiltzaileen portaera, erabilera joerak eta bezeroen lehentasunak identifika daitezkeen. Horrek aukera emango digu aplikazioaren hobetze-aukerari buruzko informazio zehatza lortzeko.



Janariaren banaketa azkarra eta eraginkorra izateko, **Bapo Bapo** bezalako zerbitzuak funtsezkoak dira. Hauek entrega **puntual** eta **kalitatezko** zerbitzuak eskaintzen laguntzen dute. Adibidez, bezeroei janaria une berean entrega egin ahal izango diegu. Kontratuak eta lankidetzak eraginkorragoa egiten dute, eta adimen artifizialaren laguntzarekin entrega-garaiak optimizatzen dira. Bapo Bapo-k denbora errealean entregen jarraipena eta kalitatearen analisia egiten du. GPSarekin bezeroak haien eskaera non aurkitzen den ikusi ahalko dute denbora guztietan, entregak azkarrago eta zehatzago egiten dira. Honela, bezeroen

gogobetetasuna handitu eta salmentak hobetzen dira.

Aplikazioaren **garapena** eta bezeroarentzako **arreta-sistema** ezartzeko, ordenagailuak, tabletak eta pantailak behar izango ditugu. Lehenengo kontaktua **adimen artifizialaren (IA)** bidez egingo da, adibidez, Unai izeneko chatbot batekin, bezeroek azkar eta zehatz jasotzeko erantzunak. Hala ere, arazoak konplexuagoak direnean, langile espezializatuak esku hartuko dute laguntza pertsonalizatua emateko. Adibidez, bezeroek menuen egokitzapena nahi dutenean, IA lehenengo irizpidea emango du, eta behar bada gure lan taldeko Manexek eskaera zehatz-mehatz gestionatuko du.

Aplikazioaren errendimendua bermatzeko, zerbitzari indartsu bat erabiliko dugu, datuen biltegitratze, aplikazioaren kudeaketa eta segurtasuna zaintzeko. Zerbitzariak bezeroen eskaerak azkar eta eraginkortasunez kudeatu beharko ditu, erabiltzaileen esperientzia hobetuz. Gainera, zerbitzariak eguneratze eta mantentze-lanak egingo ditugu, aplikazioaren funtzionamendu egonkorra bermatzeko eta akatsak saihesteko. Horrela, bezeroek erabiltzaile esperientzia ona izango dute eta aplikazioak denbora erreakzio egonkorra izango du.



Arosto aurrera joan ahal izateko **giza baliabideak** ezinbestekoak dira, eta arlo bakoitzerako langile mota desberdinak beharko ditugu:

1. **Bulegoko idazkaritza** lanetan Manex arituko da, fakturazioak eta bezeroekin harremanetan arituz, baita eguneroko administrazio-lanak eginez. Horrez gain, kontratuen prestaketa eta bezeroentzako dokumentazioa kudeatuko du.
2. **Programatzaileak**, aplikazioaren garapenari buruzko ezagutza teknikoak eta programatzaileen lana funtsezkoak izango dira *Tecnia* enpresa esaterako. Hori barne hartzen du adimen artifizialeko *Sherpa.ia* edo *Bismart* bezalako enpresen funtzionalitateak txertatzea eta aplikazioaren etengabeko eguneraketa. Adibidez, adimen artifizialak bezeroen eskariak modu eraginkorren kudeatuko ditu, *Appraisal Games*-en bidez eskariak pertsonalagoak bihurtuz.
3. **Banaketa-lantaldea (Bapo-Bapo)** janariaren banaketa azkar eta eraginkorra egiteko banaketa-enpresa eta lantaldeek lankidetzara funtsezkoa izango dute. Horrela, janariaren entrega puntual eta kalitatezko zerbitzua bermatuko da, eta bezeroen gogobetetasuna lortuko da.
4. **Marketing-a Burutu** enpresaren bitartez kudeatuko dugu, baita, bulegoan Mirari arituko da bezero berriak erakartzeko eta aplikazioaren ikusgarritasuna hobetzeko teknikekin lanean, horrela gure lana ahalik eta gehien helaraziz horretarako, marketing eta komunikazio estrategiak erabiliko dira *Burutu* enpresako profesionalak aholkatuak. Adibidez, sare sozialetan publizitate kanpainak egitea bezeroak erakartzeko.
5. **Nutrizionistak**, Durangoko *Ekana Gimnasioko* profesionalak izango dira, Malenekin lan egingo dutenak eta honen bitartez, aplikazioan eskaintza osasuntsu eta pertsonalizatua ezkaingo dugu. Profesional hauek funtsezkoak izango dira behar dituztenei elikadura-aholkularitza eskaintzeko eta dieta edo ohar personalizatu edo nutrizioaren inguruko edozein galdera erantzun ahal izateko. Profesional hauek [webgunearen \(https://sites.google.com/durangobhi.net/arosto-gure-eskaintza/orri-nagusia\)](https://sites.google.com/durangobhi.net/arosto-gure-eskaintza/orri-nagusia) edo [aplikazioaren \(https://www.youtube.com/shorts/HORNXXIVpOU\)](https://www.youtube.com/shorts/HORNXXIVpOU) (egin klik ikusi ahal izateko) bitartez kontaktatu ahal izango dira.



Finantza-baliabideei dagokionez, hiru zatitan banatzen dugu:



1. Hasierako inbertsioak: Enpresa martxan jartzeko eta aplikazioaren lehen faseak garatzeko finantzaketa bilatzea funtsezkoa izango da. Inbertsio hauek lokala alokatzea, softwarea garatzea eta langileak kontratatzea barne hartuko dute. Gure dirua inbertitsea beharrezkoa ikuste dugu, hasierako inbertsioa oso handia baita. Gutxi gora behera estimatzen dugu gure hasierako inbertsioa 40.000 - 77.500 € arteko izango da. Gure taldea 5 pertsonaz osatzen dugunez, bakoitzak 6.000€ko inbertsio bat eginez 30.000€ lortuko ditugu. Gure inbertsioaz gain, diru-laguntzak lortuko ditugu euskal gobernuaren eskutik.

Diru laguntza interesgarriena gure proiektarentzat **BARNEKINTZAILE** Programa izango da. **BARNEKINTZAILE** Programak proiektu berriak sustatzeko eta finantzaketa lortzeko diru-laguntzak eskaintzen ditu, barne-ekintzailatza bultzatzeko asmoz. Sektore guztietako enpresei zuzenduta dago. 2024ko **BARNEKINTZAILE** Programaren datuak, honako hauek dira:

- **Maileguen zenbatekoa:** 40.000 eta 180.000 euro bitarteko maileguak.
- **Interesa:** Sei hilabeterako Euriborra + %1,25.
- **Amortizazio-epea:** 7 urte, 2 urteko gabealdiarekin, hiruhileko kuotetan.
- **Bermeak:** Enpresa-plana gauzatzeko konpromisoa hartzea da berme bakarra.

Gure hasierako kapital sozialari (30.000€) eta **BARNEKINTZAILE** Programari (40.000-180.000€) esker behar dugu hasierako inbertsioa lortuko dugu.

2. Eguneroko funtzionamendurako dirua:

Materialak erosteko, enpresako gastuak ordaintzeko eta langileen soldatak estaltzeko baliabideak eskuratu beharko dira. Horrela, hornitzaileei ordaindutako gastuak eta logistika-gastuak kudeatuko dira. Diru hau lortuko dugun diruarekin lortuko dugu, adibidez tailerrekin, janari-zerbitzuarekin eta hileko ordainketekin lortuko dugu dirua.

3. Diru-sarreraren kudeaketa:

Diru-sarrerak janari-zerbitzutik, hileko edo urteko ordainketetatik eta publizitatearen bidez lortutako komisioetatik etorriko dira, baita egingo ditugun irteera eta tailerren bitartez. Finantza-kudeaketarako baliabideak izango dira sarrera hauek eguneroko funtzionamenduan erabiltzeko eta errentagarritasuna lortzeko. Adibidez, publizitate kanpainen eta komisioek lagunduko dute aplikazioaren finantzaketa eta etengabeko garapena.



Proiektu honen arrakasta funtsezko baliabideen **identifikazio** eta erabilera **eraginkorraren** araberakoa izango da. Baliabide guztiak modu estrategikoan antolatuz, erabiltzaileen esperientzia hobetzeko aukera dugu. Erronka handiak egon arren, ikuspegi argi eta sendoarekin, proiektu hau errealitate bihurtzeko aukera dago, elikadura eta teknologiaren arteko lotura **berritzaile** bat sortuz.